



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunerako
Euskal Fundazioa



RASFF TXOSTENA

ELIKAGAIAK

ALERTAK - JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria


Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak

2021ko LEHENENGO LAUHILEKOA


JAKINARAPENEN KATEGORIZAZIOA

2021ko lehenengo lauhilekoan elikagaiei buruzko 1229 jakinarazpen izan dira. Horietatik 404 alertak izan dira (%33), 387 informazio-jakinazpenak (%31,5) eta 438 mugan egin diren ukapenak (%35,5).



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoa izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **43a Turkiakoak** dira eta %**28ak Indiakoak**. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdea **Polonia** izan da, % **17**arekin. Afrikaren kasuan, **Egipto %47,5**arekin eta azkenik, **Amerikaren kasuan Brasil** da jakinarazpen gehien sortu duenak, %**34**arekin.

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2021ko 1. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1229 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturrirei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturria	%
Hondakinak	% 37,5
Kutsadura biologikoa	% 21
Iruzurrak	% 13
Mikotoxinak/biotoxinak	% 13
Kutsadura kimikoa	% 6
Produktuaren egoera higieniko txarra	% 4
Kutsadura fisikoa	% 3
Metal astunak	% 2,5



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIAK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % **79,5**an, kutsadura **AFLATOXINEK** eragindakoa da eta, horrelakoetan **KAKAHUETEA** kutsaduren % **34,5**a eragin du. Kasu gehienetan (% **51a**) kakahuetea **EGIPTO**tik zetorren.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **SALMONELEK** kutsaduren %**64,5**a eragin ditu. *Salmonella sp* da talde honetako protagonista nagusia kasuen % **71**an. **OILASKOA** izan da produktu protagonista %**28**ko kasuetan, %**67**ko kasuetan **POLONIA** jatorria zelarik. Beste salmonelei dagokienez, %**21**a *Salmonella enteritidis* dagokio (**OILASKOAK** eragin ditu kasuen % **88**a eta %**100**eke kasuetan **POLONIA** izan da jatorria) eta %**8**a *Salmonella typhimuriumi*, kasu honetan ere **INDIOILARRA** protagonista izan delarik (%**54**a) eta **frantziakoak** (%**100**).

Kutsadura biologikoarekin jarraituz, *Listeria monocytogenesak* jakinarazpenen %**14,5**a eragin ditu, **GAZTAK** %**35**ean inplikatutak egonda eta **eUROPA** jatorria izanik ia %**100**Ean.

Hondakinei dagokionez, **PESTIZIDAK** %**95**a dira eta **MEDIKAMENTUAK** %**5**a. Pestiziden kasuan, **PIPERRAK** eta **ZITRIKOAK** inplikatuak daude kasuen %**67**ean.

Jasotako iruzurru guztien artean, **ETIKETAN ADIERAZI GABEKO ALERGENOEK** %**25**ak (40 kasu), suposatu dute

